

## **2021eko MARTXOAREN 11ko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Martxoaren 11 Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna da. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak honako adierazpen instituzional hau onetsi du:

1. Adierazi nahi dugu indarkeria terrorista –bidegabea eta legez kontrakoa izateaz gain– giza eskubideen urraketarik latzena dela, eta demokraziaren eta bizikidetzaren aurkako mehatxu larria.
2. Jarraituko dugu babesa eta solidaritatea eskaintzen ETaren, 11Mren eta beste organizazio terrorista batzuen biktimei; haiekin eta haien ordezkari diren elkarte eta entitateekin lan egiten, egia, justizia eta erreparaziorako dituzten eskubideak gauzatu daitezen eta horrelakorik errepikatuko ez den bermea izan dezaten.
3. Arbuiatzen ditugu terrorismoaren biktimen eta horien senideen duintasuna eta memoria urratzen dituzten ekintza guztiak.
4. Terrorismoaren biktimen lekukotasunak, bizipenak eta gogoetak dokumentatu eta zaindu behar dira, ahantzi ez daitezen eta biktimekiko enpatia eta hurbiltasuna zabaldu dadin.
5. Hezkuntza programa berriak bultzatuko ditugu, honako balio hauek dituen kultura bat bideratzeko: giza eskubideekiko errespetua, indarkeriaren zilegitasunik eza, biktimekiko enpatia eta bizikidetzarako gaitasuna.